



KUDEAKETA PLANA 2019

Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea

SARRERA

Aurten jakingo dugu UNESCOren iazko errebalidaren emaitza. Sarean sartu ginenetik bi errebalida prozesu pasa ditugu, 2014an eta 2018an, eta badirudi ohitu egin garela edo ez diogula horrenbeste balio ematen beste lau urtez Geoparkeen Sarean egoteari. Ez da pribilegio bat, ez eta eskuratutako eskubide bat ere, lau urtetan egindako lan gogorraren emaitza baizik. Horregatik, aurten gertakari hau modu berezian ospatzeko asmoa daukagu, herritarrei lortu dugunaren garrantzia helaraziz, gertaera garrantzitsu hau oharkabeen pasa ez dadin.

2019. urtea historiaurreari heltzeko urtea izango da. Bere garaian Interpretazio Planak eta, duela gutxi, Paisaia Planak berretsi duen bezala, aurrehistoria Geoparkeko interpretazio gaien zutabeetako bat da. Ermittiako kobaren inguruan emango da lehen urratsa, karsta eta gizakia, espeleologia eta arkeologia bateratuz.

2019. urtean gehiago izango dira Geoparkeak egindako material didaktikoak erabiliko dituzten Geoeskolak. Material hauek metodologia berritzaile bat jarraituz egin dira eta hiru herrietako ikastetxeek, dagokien mailan, erabiltzeko aukera izango dute. Aurten LH1eko ikasleak Geoikasle bihurtuko dira fosilen inguruko ezagutza zabalduz.

Irteera gidatuen kudeaketak ildo beretik segituko du baina bisitari mota zehatz batengana hurbiltzeko esfortzuak areagotu egingo ditugu. Talde espezializatuak, unibertsitate, zientzia elkarte eta adituentzat eskaintza berezi bat zabalduko da katalogo jakin baten bitartez. Badirudi bisitari kopuruaren igoera nolabait egonkortu egingo dela, eta publiko mota honek estrategikoki hazten jarraitzea ahalbidetuko digu.

Geo-ibilbideen proiektua ere biribildu egingo da 2019an, sarea osatu eta "kontsumitzeko" erraztasunak prest edukiko ditugulako. Geo-ibilbideek atal propioa izango dute webgunean, beste webgune espezializatu batzuetara loturak eginez, eta ibilbide bakoitza deskargatu ahal izateko PDFak eskuragarri jarriko dira.

Xehetasun gehiagoz hurrengo orrialdeetan 2019ko Kudeaketa Planak emango duena.

1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Ardatz estrategiko honen xedea da Lurraren Zientzien ikerketarekin eta sozializazioarekin eta geoniztasuna eta ondare naturala eta kulturala babestearekin lotutako helburuei erantzuna ematea.

Zehazki, ondare geologikoaz gainera, ondare arkeologikoa, itsas ondarea eta ondare ukiezina hartzen ditu kontuan. Ardatz horren helburuetako bat da, baita ere, ingurumen-heziketako eskaintza koordinatu bat sortzea, Euskal Kostaldeko Geoparkea hainbat motatako jendearentzat interesgarri egingo duena, eta eskola-esparruarentzat bereziki.

1.1 - Lurraren Zientzien (LZ) alorreko ikerketa eta dibulgazioa

- Ikerketaren sustapena
 2. Aranzadi Zientzia Elkartarekin eta UPV/EHUekin batera, bi urtetako proiektu bat lortu dugu Unibertsitate-gizarte programaren barruan paisaiaren bilakaeraren inguruan.
 3. Paisaiaren masterraren hitzarmenaren baitan, hurrengo TFMa bultzatuko da “ANÁLISIS DE DINÁMICAS GRAVITACIONALES EN ZONAS DE ACANTILADO COSTERO DEL GEOPARQUE DE LA COSTA VASCA”.

Bai ammoniteen inguruko proiektuak, bai Ermittiako kobak, ikerketa proiektu bat eska dezakete ezagutza zabaltzeko. Bi proiektu hauek estrategikoak dira Geoparkearentzat eta aukera ikusten bada bultzatu egingo dira, zuzenean edo beste entitate batzuen bitartez.

- Konferentzia eta ikastaroetan parte hartzea

Urte osoan, topaketa, ikastaro eta beste hainbat forotan parte hartzen dute Geoparkeko ordezkariak. Leku horiek ikusgarritasun handia dute, eta hartzaile oso zehatzei zuzenduta daude, eta Geoparkeak erreferentziako erakunde gisa posizionatu nahi du horietan ikerketaren eta dibulgazioaren alorrean. Momentuz aurtan aurreikusten direnak:

- Euskadiko Ekoturismo II Foroa, otsailaren 1ean Gasteizen
- Debabarreneko Esperientzia Eibarko Armeria EskolanFiturren Geoparkeen aldizkari berriaren aurkezpena
- (..)

Bi urtetik behin egiten du Geoparkeak formakuntza ikastaro bat eta 2018an izan da azkena. Halere, bi aukera sortu dira beste mota bateko formakuntza emateko, orokorragoa.

- Natures Kooperatiba andaluziarra, Fundación Biodiversidad-ek onartutako diru laguntza baten bitartez.
- Urdaibai Biosfera erreserbak gidarientzat ikastaro bat antolatu du eta ekarriko duten irakasleren bat ekarriko dugu gurera interpretazioaren inguruan klase bat emateko.

1.2 - Ondare arkeologiko eta historiaurreko ondarearen ikerketa eta dibulgazioa

2018an Aranzadi Zientzia Elkarteari eta UPV/EHUri enkargatutako lanei jarraipena egingo zaie 2019an. KARSTA eta GIZAKIA proiektuan definitutako interpretazioa ejekutatzeke urtea izango da. Interpretazio hau hiru ataletan definitu da:

- Debako hasiera puntua
- Debatik Ermittiarako bidea
- Ermittia kobako barnealdea

2018an Ermittian labar artearen miaketa eta topografia egin ondoren, 2019ra begira ate berriak ireki dira lur azpiko mundua ikertu eta ezagutarazteko.

1.3 - Itsas ondarearen dibulgazioa

2019an Elkanoren urteurrena ospatuko da. Elkano Fundazioarekin hitz egin eta gero ospakizun honi lotutako ekitaldiren bat aurreikusten ere da Geoparkean.

1.4 - Ondare ukiezinaren dibulgazioa

2019an Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea izango da. Honi lotuta, "Enigma bizia" irteera promozionatzeko esfortzu berezia egingo da. Tolosako "Aktibatu" biltzarrean ahozko komunikazio bat egingo da gure esperientzia azaltzen.

1.5 - Ingurumen-heziketa

GEOESKOLAK

2018-2019 ikasturtean egindako Flyscharen inguruko unitate didaktikoa ikastetxe guztientzat eskuragarri egongo da Algorri Interpretazio Zentroan. 2018-2019 ikasturtean Geoeskolek material hori erabiltzeko aukera izango dute.

Geoeskolen proiektuan aurreikusten zen bezala, 2019an bigarren unitate didaktiko bat egingo da LH 1.mailarako, Ammonite eta fosilei lotuta.

2. ARDATZA: GEOTURISMOA

Geoturismoa sustatzeko ekintzak proposatzen dira turismo jasangarriaren irizpideei jarraituz, beti ere.

2.1 - Produktuak eta baliabideak

Ekoturismoa da Geoparkearen turismo jardura markoa. Basquetourrek bultzatutako ekimenetan izango gara, kongresu eta lan-mahaietan jarrera aktiboa edukiz. Basquetourrek sinatu berri duen hitzarmenean oinarrituta Geoparkeko entitate laguntzaileak Ekoturismoko klubarekin bat egingo dute. Honek promozio aukera handiak emango ditu eta gure helmuga natura turismoarekin are gehiago lortuko du.

- Zientzia turismoa:

Estrategikoa da Geoparkearentzat arlo hau lantzea. Katalogoaren bidalketa masibo bat egingo da Unibertsitate, Master, Zientzia elkarte edota zientzia eta ikerketarekin zerikusia duten entitateei zuzenduta.

- Kirol ekitaldiak:

Hainbat eta hainbat dira guregana laguntza eske hurbiltzen diren kirol proben antolatzaileak. Irizpide jakin batzuk definitu behar ditugu laguntza eskaera horiei erantzun koherente bat emateko. Iaz bezala, esfortzu berezia egingo da hurrengo hauekin:

- Flysch Trail
- Lasturko mendi martxa: Geoparkeko karstaren bira
- Flysch Beltza igeriketa zeharkaldia

2.2 - Bisita gidatuak

- Bisita gidatuen programa:

Geoparkeko produktu arrakastatsuen da; horrexek bereizten gaitu gertuko beste leku batzuegandik, eta horrexek ematen digu ikusgarritasuna. Gainera, dibulgaziorako tresna eraginkorra da, eta bisitariak asko balioesten dutena.

2019ko programan 16 esperientzia ezberdin eskainiko dira eta 1.500 bisita inguru. Martxoan, Aste Santura begira, denboraldiaren aurkezpen ofiziala egingo da, aurten Flysch Ibilbidearen GR 121a itsasontzizko bidaiekin lotuko dugu, Deba eta Zumaia edo Zumaia eta Deba artean.

- Merkaturatze bideak: www.geoparkea.eus webgunea eta on line erreserba sistema. Geoparkeko hiru turismo bulegoak eta Donostiako San Sebastian Region bulegoa. Bidaia-agentziak eta errezeptiboak. Urtero-urtero indar gehiago hartzen eta negozio bolumena handitzen doa.

2.3 - Sustapena eta merkaturatzea

- **Turismoa sustatzeko azokak.** Basquetourren edo eskualdeen partaidetza duten azoka guztietan egongo da Geoparkea. 2019an ere **Basque Fest** jaialdian izango gara Bilbao Turismo elkarteak gonbidatuta.
- EGN eta GGN sareekin batera **FITUR** eta ITB Berlin azoketara joango gara. Lehenengoan mostradorearen ardura izango dugu eta bigarrengoan beste geoparke batzuek ordezkatzeko gaituzte. 2019an FITURen Geoparkeen aldizkari berria aurkeztuko da Euskadiko standean, Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuaren eta Munduko Geoparkeen sareko koordinatzailearekin batera.
- **Interpretazio-liburuxkak** eta materiala. Geoparkearen sustapen-materiala turismo-bulegoetan eta azoketan banatzen da. Material hau eguneratu egin behar da, horrek eskatzen duen beharrekin: itzulpenak, inprenta...
- Promozio jakinak egingo dira bultzada berezia behar duten bisitetarako. Garrantzia berezia emango zaio online sustapenari.
- Bisitei buruzko material grafikoa prestatuko da gidarientzat. Materiala urtero eguneratzen da, hondatu egiten delako, edo diskurtsoan eduki berriak sartzen direlako (fitxak, karpetak...).
- “Nautilus, flyscheko fosilak” eta “Irteera geologikoa”ren diskurtsoak idatziko dira eta horiekin lotuta doan material grafikoa sortuko da.

3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

3.1 - Ibilbideak eta mendi-bideak diseinatzea

- Geoibilbideen sarea osatu egingo da Deban diseinatu diren 4 ibilbide berriekin. Jabetza kontuek markatuko dute ejekuzioaren erritmoa. Horregatik, bide publikoetatik doazen ibilbideak lehenetsiko dira.
- Webgunean ibilbideek duten atala hobetu egingo da, track-ak gehituz eta deskargatzeko PDFak eskuragarri jarritz.

3.2 - Interpretaziorako azpiegiturak

Hurrengo proiektuaren ejekuzioa ez dago Geoparkearen menpe, eta, beraz, ez da Kudeaketa Planean sartu; alabaina, eragin zuzena du gugan. Mutrikuko Udalak hitzarmen berri bat sinatuko du Jesus M^a Narvaezekin ammoniteen bilduma osoa Mutrikura ekartzeko. Aldi berean, Mutrikuko Udalak biltegi eta gela didaktiko bat egokituko du bilduma osoa jaso eta ikerketak egiteko. Geoparkeak gela hau hezkuntzarako edukiz hornituko du Ammoniteen inguruko unitate didaktikoa bertan garatu ahal izateko.

Aurten, bai Nautilus eta bai Algorri zentroyen gestiorako lehiaketak kaleratuko dira. Geoparkeak egin beharreko lanen definizioan eskatutako laguntza emango du bi kasuetan.

3.3 - Ingurune naturala babestea eta kontserbatzea

- Boluntariora, **herritarren zientziari** lotutako ekimenak.
- **Nazioarteko egunen** ospakizuna. GGN saretik jasotzen dugu nazioarteko egunak ospatzeko gomendioa. Horrela, bi egun aukeratu ditugu: Hezeguneen Eguna otsailaren 2an eta Mendien Nazioarteko Eguna abenduaren 11an.
- Zuhaitz Eguna otsaila eta martxoa artean ospatuko dugu iaz hasitako zuhaitz landaketari jarraituz. GFaren eta Itziarko Auzo Udalaren laguntzarekin.
- Beste ekimen batzuk, naturarekiko sentsibilizazioa indartzeko. Adibidez, natura-argazki tailerra, zuhaitzak ezagutzeko tailerra...
- Geolodiaren antolakuntza /EHUrekin batera. Gaia “flysch beltzeko Ammoniteak” izango da.

Plastikoen gaia ez dugu ahaztu nahi. Iaz ezustean protagonista bihurtu ginen eta aurten gertaera hori kontzientziazioan sakontzeko erabili nahi genuke. EJ, AZTI, Europako LIFE proiektu ezberdinak kontuan izango ditugu, elkarlanean ekimen bat aurrera eramanez ahal izateko.

4. ARDATZA: KUDEAKETA OROKORRA eta KOMUNIKAZIOA

4.1 - Planifikazioa, antolakuntza eta proiektuaren kudeaketa orokorra.

Lantaldea: Geograpeneko langileak

- **Gerentziak** Geoparkearen kudeaketa orokorrarekin lotutako eginkizunak betetzen jarraituko du, bai Europako eta Munduko Geoparkeen Sarean (EGS/MGS) eta Espainiako Geoparkeen Batzordean (CNEG) ordezkartza-lanak gauzatzen ere.
- **Irteera gidatuen dinamizatzailerak** 2019ra begira eginkizun hirukoitza izango du:
 - Online sistemaren kudeaketa.
 - Turismo zientifikoari zuzendutako eskaintza estrukturatu.
 - Turismo atalak eskatzen duen kudeaketa orokorra.

Kanpo-laguntza:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunekin jarraituko du, bai EGS eta MGS ordezkartzarekin. Foroko koordinazioa ere mantendu egingo du eta beraz, MGSko aholkularitza batzordeko kide izaten jarraituko du.
- **Komunikazio-zerbitzua eta prentsa-kabinetea** arduratuko da komunikazio alorreko aholkularitzaz, prentsa-oharrak sortzeaz, webgunea eguneratzeaz, boletin digitalaz, eta abarrez.
- **Community manager** bat (sare sozialen kudeatzailea) arduratuko da @Geoparkea markaren estrategiaz Facebooken, Twitterren eta Instagramen.
- **Ingurumenaren eta jasangarritasunaren** koordinazioa, Naturgune Babestuen (NB) jarduerak eta ingurumen-heziketako ekintzak sustatzeko. 2019an Geoskolekin lankidetzatza sendotuko da.
- **Kontabilitate eta aholkularitza juridikoa** erakundearen eguneroko kudeaketarako.
- **Interreg** Europako proiektuak eskatzen duen bezala, lehen mailako **auditoretza** kontratatu behar da kontuak auditatuta bidaltzeko Bruselara. Proiektuak irauten duen bitartean sei-hileko txostenak bidali behar dira, guztira 6 egiaztapen.

Geoparkezaleen komunitatea dinamizatuko dugu, sektore pribatuarekin hasitako lanarekin jarraituz eta beste kolektibo batzuekin lan-ildo berriak irekiz. Baliabide propioekin egingo dugu aurten lan hau eta ez da kanpo asistentziarik kontratatuko.

Zuzendaritza Batzordearen indartzea

GFAko Naturguneen kudeatzailea, EJko Ingurumen eta Basquetourreko ordezkariak izateko zuzendaritza batzordea, 2018ko ildoi jarraituz.

Gardentasun ataria eta kontratazio publikorako plataforma

Gardentasunaren atal berria eguneratua mantenduko da eta Kontratuen lege berriari jarraituz EJren plataforman alta emango dugu legeak eskatzen duen bezala kontratazio publikoak bidezkoak izan daitezten.

Datuen babesa

2018an formakuntza jaso eta 2019 lege berrira egokitzeko lanak egingo dira.

4.2 - Interreg, Atlantiar Geoparkeak

Kudeaketa arazo batzuk izan dira proiektuarekin lotuta eta lanek aurrera egin duten arren, luzapen bat eskatu behar izan da lan-multzo bateko zereginak egin gabe zeudelako oraindik. Erantzunaren zain gaude oraindik baina 2020ko azarora bitarte luzatuko dela dirudi. Gure aldetik, guri dagokigun eginkizun garrantzitsuena burutu dugu 2018an, hau da, partaide diren Geoparke guztien irudiak bideo batean biltzea.

Hurrengo hauek dira lan-ildo nagusiak datozen hilebeteetarako:

- Geokontserbazioaren kudeaketa, tokiko edo turismoaren inguruko praktika onak ezagutuko dira
- Esperientzien elkartruke honetan oinarrituta “kudeaketarako erraminta kit” bat definituko da.
- Geoturismoa neurtzeko adierazleak definituko dira.
- Geokontserbazio Karta idatziko da.
- Bi geoparke hautagaiei aholkularitza emango zaie haien hautagaitzak prestatu eta aurkezteko.

4.3 - Harremanak Europako Geoparkeen Sarearekin (EGS) eta UNESCOrekin.

Atal honen helburua da nazioarte mailan Geoparkearen presentzia eta influentzia handitzea. Horretarako, jarrera aktiboa izango dugu bai antolatzen diren topaguneetan, baita eskaintzen zaizkigun beste aukera batzuetan ere.

EGSren topaketak 2019an:

- Udaberriko Koordinazio Batzordea Swabian Alb Alemaniako Geoparkean, martxoaren 25etik 29ra.
- EGS sareko konferentzia irailean, Sevilla Sierra Norte Geoparkean.
- Urteroko ekarpenak Europako eta Munduko Geoparkeen Sareari, sustapen-tasa gisa lehenik, eta UNESCOren Geoparkeen programaren funtzionamendurako ekarpen gisa bigarrenik.
- Interreg proiektuan topaketak:
 - Marble Arch Geoparkean ekainean (Ipar Irlanda)
 - Aroucako Geoparkean udazkenean (Portugal)

Europako Sareko Koordinazio batzordeetan hurrengo lantalde hauetan hartuko dugu parte:

- SDG (GIH/ODS) lantaldean
- Hezkuntza lantaldean

Bi sareek erabiltzen dituzten informazio-euskarrietan gure ekarpena handitu. Besteak beste:

- EGN newsletter, sei-hilerokoa
- GGN Newsletter
- EGN magazine
- Ekitaldien egutegi digitala

Kontrolerako erabiltzen diren txostenak ere puntualki bidaliko dira:

- Sei hilabeteko txostena
- Urteko txostena
- Geoparkeen asteko programa eta balorazio txostena

Estatuko Geoparkeen Batzordean ere ordezkaritza hirukoitza daukagu: Geoparkeko ordezkaria, EAEko ordezkaria eta Geoparkeen koordinatzailea. Besterik ez bada, urtean behin egiten da jarraipen bilera bat Madrilen.

Foroaren ekimen bat Geoparkeen Jardunaldi irekiak izaten dira; 2019an Las Loras Geoparkeak antolatuko ditu azaroan.

4.4 - Komunikazioa

ON LINE

- Webgunearen kudeaketa eta erreserba zentralaren hobekuntzak urtero egiten ditugu, 2019an:
 - Webguneako atalen berrantolaketa bat egingo dugu
 - Erreserba sisteman hobekuntzak
 - Zenbait irteera gidatutan erreserba egiteko orduan hizkuntza aukeratzeko aukera emango dugu.
 - Irteerak neurrira egin ahal izateko atal berria sortu, taldeentzat formulario bat diseinatu behar da.
- Albisteen atala eguneratuta mantenduko da. 2019an 50 bat albiste argitaratuko dira webgunean.
- Newsletterra bi hilebetero bidaliko da gutxi gorabehera. 6 bat ale, urte osoan.
- Mugikorrarekin ateratako bideo motx batzuk egingo dira sare sozialen bitartez zabaltzeko. Gaiak zehazteke daude oraindik.

OFF LINE

- Komunikabideetan **publizitatea kontratatzea**, irratian zein prentsan edo aldizkari espezializatuetan. Batez ere, hiriburuetako komunikabideetan eta jarduera turistikoa murriztagoa den hilabeteetan.
- Geoparkeko sustapen-jarduera guztietan kalitate handiko **argazkiak**, liburuxkak, web-edukiak, iragarkiak eta abar sortu behar dira. Horretarako, argazkilari profesionalekin lan egiten dugu, eta adostutako baldintzetan sustapenerako erabil ditzakegun argazkiak hautatzen ditugu.

5. ARDATZA: TOKI GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA

5.1 - Lehen sektorea sustatzea

- **Geogourmet saskiak** saltzea lurraldean ekoiztako produktu bereziak balioesteko eta Geoparkea sustatzeko ekintza gisa. Hornitzaile berberekin jarraitzen dugu, eta hiru turismo-bulegoetan egongo dira salgai prezio berean.
 - Txakolina: Sagarmiña eta Flysch
 - Gazta: Goienetxe
 - Atuna kontserban: Sizzo eta Nardín

5.2 - Geoparkezaleak

Geoparkezaleen komunitatea sortuta dago turismo arloko enpresen artean. 2019an harremanak sendotu egingo dira hurrengo ekintza hauen bitartez:

- Formakuntza saioak
- Jasangarritasun praktika onen ikastaroa
- Webgunean Geoparkezaleak atala egokitu
- Beste kolektibo batzuei komunitatea ireki

Basquetourrek ekoturismoa sustatu nahi du eta helburu hori lortzeko Geoparkea oso ondo posizionatuta dago. “Entitate laguntzaile” marka SICTED agirian oinarrituta dago eta hau abiapuntu egokia da Carta Europea de Turismo Sostenible (CETS) edo Ekoturismo Produktu Klubarekin bat egiteko. Basquetourrek zer bultzatuko duen ez dago oraindik garbi eta horren arabera emango ditugu guk ere pausoak.

5.3 - Geoparkeen Europako Astea

Maiatzaren 24tik ekainaren 9ra, Geoparkeen Europako Astea ekimena gauzatuko da. Oraindik zehaztuta ez badago ere, antolatuko diren ekitaldiak honako hauek izango dira:

- Hitzaldiak
- Tailerrak, erakusketak...
- Doako bisita gidatuak
- Marrazki lehiaketa ikasleentzat
- GeoTalks
- Geoparkeko bira (etapaka)